

## LAN KONTRATUA ALDATZEN DUEN BERRITZE AKORDIOA

Oñatin, 2013ko Uztailaren 1ean

### BILDUTAKOAK

**ALDE BATETIK: M. Arantzazu Anduaga Salvatierra** andrea, adin nagusikoa, Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia **15.361.268-M** duena, ULMA Hormigón Polímero Koop. Elk.aren izenean eta ordezkartzapean eta haren Giza Baliabideen Zuzendari gisa, IFZ **F-20563623** duena eta helbide soziala **Zubillaga Auzoa, 89, Oñati (Gipuzkoa)** duena (aurrerantzean Konpainia)

**ETA BESTE ALDETIK:** ..... jauna/andrea, adin nagusikoa, Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia ..... duena eta helbidea ..... duena, bere izenean eta eskubidez jarduten duena (aurrerantzean langilea)

### ADIERAZTEN DUTE

1. Langileak Konpainiarentzat lan egiten duela, bi aldeek sinatutako eta indarrean dagoen kontratuaren arabera.
2. Konpainiak Ordainsari Malguaren Plan bat ezarri duela ("eFlex"), bertan parte hartu nahi duen Konpainiako langile ororentzat.
3. Ordainsari Malguaren Planarekin bat egitea borondatezkoa dela, langileak hala nahi duela adierazita, langilearen ordainsariaren zati bat esku-dirutan ordezkatzeari ahalbidetzen duela, beste onura eta produktu batzuetara bideratzeko.

Adierazitakoaren arabera, bi aldeak akordio batera iritsi dira lan kontratuan ezarritako ordainsari sistema aldatzeko, lotzen dituen berritze kontratu honen bidez eta ondorengo akordioaren arabera:

### AKORDIOAK

#### **Lehen.- Ordainsari Sistemaren Aldaketa**

Ordainsari Malguaren Planaren aplikaziorako, langileak eskatzen du eta enpresak onartzen du biak lotzen dituen ordainsari sistemaren aldaketa partziala, onartuz 2013ko Uztailaren 1etik aurrera ordainsaria esku-dirutan partzialki ordezkaturia izatea Konpainiak eskainitako Ordainsari Malguaren Planaren adostutako produktuen ordainsariaren zenbatekoengatik.

Langileak onura edo produktu hauetara bideratu ahal izango duen kantitatearen muga ezin izango da soldata bidez eskuratzen duena baino %30 gehiago izan.

#### **Bigarrena.- Indarraldia**

Lan kontratua aldatzen duen berritze akordio honek urteko iraupena izango du, eta bi aldeek ezer ez badute adierazten, luzatu egingo dela ulertzen dute, baldin eta hala adierazten ez badu bi aldeetako edozeinek bukaera data baino 30 egun lehenago.

Langileak edo Konpainiak akordio hau ez luzatzea erabakiz gero, eta beraz, akordioa eraginik gabe uzten badu, hark eskubidea izango du esku-dirutan ordaintzeko bere jatorrizko kontratuaren arabera dagokiona eta legez egokitu ahalko litzazkiokeen eguneratzeekin.

#### **Hirugarrena.- Kalte-ordainak**

Langileak, lan legeriaren arabera, eskubidea izango balu Konpainiaren eskutik kalte ordainik jasotzeko, horren kalkulua egiteko, Konpainiak ordainsari malguaren sistemaren barruan eskainitako onura eta produktuak aukeratu gabe bezala langileak jasoko lukeen ordainsaria aintzat hartuko litzateke.

#### **Laugarrena.- Ordainsariarekin zerikusia duten beste onura batzuetarako soldata erregulatuak**

Konpainiak eskaintzen duen esku-dirutan ordaintzearekin zerikusia duen edozein eskubide eskuratzeko, kalkulatzeko edo mantentzeko, erreferentziazko ordainsari gisa hartuko da Konpainiak ordainsari malguaren sistemaren barruan eskainitako onura eta produktuak aukeratu gabe bezala langileak jasoko lukeen ordainsaria.

#### **Bosgarrena.- Langileak Konpainia uztea**

Langilea Konpainian baja balitz, ezarritako edozein legezko arrazoirengatik, langileak automatikoki utziko litzuzke aukeratutako onurak eta horien aprobetxamendua.

Hala ere, aurrekoa, bakarrik ordenagailu pertsonal baten erosketaren edo formazio ikastaroen kasuetan, ordaintzear dauden zenbatekoak likidatu egin beharko dira eta horretarako aldeek adostu dute Konpainiak bukaerako likidazioaren zenbatekoak konpentsatu ahal izango dituela. Konpentsaziorako zenbateko nahikorik ez balego, langileak konpromisoa hartzen du dagokion zenbatekoa lehenbailehen ordaintzeko.

#### **Seigarrena.- Zerga atxikipena eta Gizarte Segurantzako kotizazioa**

Langilearen urteko ordainsarirako indarrean dagoen legearen arabera zerga atxikipenak aplikatuko dira. Kontu sarrera kostua hilerok egingo zaio langileari.

Konpainiak Gizarte Segurantzara produktuen erosketara bideratutako zenbateko malgua kotizatuko du eta ordainsariaren malgutzea baino lehen egiten zen kotizazioan ez da inolako aldaketarik izango

#### **Zazpigarrena.- Aldaketa legalak, administratiboak edo judizialak**

Konpainiak egokia den unean eman dezake bukatutzat Ordainsari Malguaren Plana eta beti aldaketa legalak, administratiboak edo judizialak gertatzen direnean, Konpainiarentzat kaltegarriak direnean edo izan daitezkeenean, eta kasu honetan, Hitzarmen Kolektiboak ezarritako edo Konpainiari aplikagarri zaion ordainsari sistemara itzuliko da.

#### **Zortzigarrena.- Funtzionamendu arauak**

Langileak adierazten du eFlex-en funtzionamendu arauak ezagutu eta onartzen dituela, langileei bidalitako komunikazioetan jakinarazitakoaren arabera eta Planaren kudeaketarako sistema informatikoan zehaztutakoaren arabera.

#### **Bederatzigarrena.- Prezioen aldaketa**

Akordio honen indarraldian, Ordainsari Malguaren Sistemaren bidez kontratatutako produktuen zenbatekoek aldaketak izan ditzakete, aukeraketa laburpenean ez direnak islatuta geratzen. Diferentzia hauek bai gorakoak, bai beherakoak izan, dagozkion soldaten agirietan islatuko dira eta aurrez jakinaraziko da. Enpresak ez ditu bere gain hartuko bukaerako hornitzaileak langileari egotzi ahal dizkion zordunketa posibleak.

#### **Hamargarrena.- Datuen egiazkotasuna**

Langileak aitortzen du emandako informazioa egiazkoa eta benetakoa dela. Konpainiak Pertsona Fisikoen Errentaren Gainera Zerga arloan zordunketak edo kalte-ordainak bere gain hartu beharko balitu, langilearen aldetik egiazkoak ez diren datuak emateagatik, horrek zenbateko osoa bere gain hartu beharko du.

#### **Hamaikagarrena.- Kontratuaren eranskina**

Kontratu honi erantsirik, urtero eranskin gisa produktuen aukeraketa dokumentua gehituko da.

#### **Hamabigarrena.-Ondorioetarako datak**

Berritze hitzarmen honek 2013ko Uztailaren 1etik aurrerako ondorioak izango ditu.

Honekin ados gaudela egiaztatzeko, bi aldeek lan kontratuaren berritze akordio hau sinatu dute kontratuaren bi aleetan eta ondorio bakarrarekin, goian adierazitako leku eta egunean.

Konpainia

Langilea

Izpta **M. Arantzazu Anduaga Salvatierra**

Izpta.: .....